

FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresaren funtsezko jarduera aurretik beste enpresa batek/batzuek ekoiztutako produktuak saltzea da. Zerbitzu enpresatzat hartu daiteke.

Ekoizpena ez da ematen ez delako manufaktura enpresa, solik produktuen salmentataz arduratzen da. Plataforma edo sareko jardueren kudeaketa murriztua da. Salmenta fisikoa dauka oinarri, ez dago online denda. Bestalde, sarean enpresaren berri eman beharra dago, hala nola iragarkiak, baita zerbitzuaren inguruko informazioa edonoren esku uztea,; horregatik, web orrialdea badago hau guztia lortzeko. Publizitate fisikoa onuragarriagoa da kasu honetan, adibidez salmenta puntuetan (liburutegiak) kartelak jartzea edo paperak banatzea.

Arazoak konpondu ahal izatea beste funtsezko jarduera bat da, eguneroko jardueretan emanten direlako. Hauek konpontzea aurrera jarraitu ahal izatearen oinarri dira.